



## **2021ERAKO ARAUDI PLANA**

39/2015 Legeko 132. artikuluan jasotakoa betez, 2021. urtean udal honek onartu edo aldatu nahi dituen araudi edota ordenantzak honakoak direla adierazten da.

### **SEMINARIXOAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Ordenantza hau aurreikusten zen 2019ko planean, baina hainbat arrazoi medio ez da oraindik onartu.

Seminarixoa kultur aretoa eta horren erabilera arautzeko beharrezkoa ikusten denez ordenantza bat idaztea, zehaztuta uzteko zertarako eta zein baldintzarekin erabili ahal izango den, ordenantza hori egitea aurreikusten da

### **KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA**

Igarotako urte hauetan udala jabetuta arautegia zahartuta geratu dela eta ez diola tresnarik eskaintzen gaur egun bizi ditugun hainbat egoerari aurre egiteko, jadanik iazko araudi planean sartu zen araudi berria prestatzea eta aurretiazko kontsulta egin zen eta zirriborroa prestatu, baina oraindik aztertzen ari da udala. Beraz, araudi berria prestatzen bukatzea aurreikusten da.

### **TERRAZAK JARTZEKO BAIMENAK ARAUTZEKO ARAUDIA**

Ikusita une honetan indarrean dagoen ordenantza berritzeko premia dagoela terrazen instalazioa hobeto arautzeko eta ez bakarrik lurzoru publikoan baita ere eremu pribatuetan, joan den urteko araudi-planean sartu zen baina ez zen posible izan onartzea. Premiak jarraitzen duenez, araudi berria egin edo dagoena aldatzea aurreikusten da.

Dena den, eta kontuan izanda horrek denbora pixka bat eraman dezakeela eta terrazak negu garaian ere erabiltzeko, COVID-ari aurre egiteko neurriak beteta, ordenantza aldatu beharra dagoela, lehenengo egingo dena da gaur egungo ordenantzaren aldaketa eta ondoren aztertuko da ordenantza berria.

### **EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZEN ARAUDIA**

Euskara Zerbitzuak dirulaguntzak zeintzuk jaso ditzaketen eta langabetuak dirulaguntza jasotzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa argitzeko beharra ikusten du. Beraz, hori argituz araudian aldaketa bat egitea pentsatzen da.

### **ANIMALIEN BABESERAKO UDAL ORDENANTZA**

Igarotako urte hauetan udala jabetuta arautegiak aldaketa batzuk behar dituela, horregatik planteatzen da aldatzea.



### **HILERRIETAKO ORDENANTZA**

Beharrezkoa ikusten da udalerrian dauden hilerri desberdinen zerbitzua arautzea eta bertan dauden hilobiratze mota desberdinak dokumentu bakar batean jartzea.

### **AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Beharrezkoa ikusten da okupazioaren denborari dagokionean eta bizitoki itinerante ezberdinei (karabana, furgoneta..) dagokienean salbuespenak emateko aukera izatea udalak.

### **ESPAZIO PUBLIKOEN GARBIKETA ETA GARBIKETA-ARAUAK JASOKO DITUEN UDAL ORDENANTZA**

Espazio publikoen garbiketa helburu izanda horren inguruko arauak, garbitzeko arduradunak eta jokabideak arautu nahi dira.

### **DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA**

Orain arte udaleko urteko aurrekontuen exekuzio-arauan jasotakoa ordenantza batean jaso nahi da.

Begara, 2021eko martxoaren 9a